



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/10/06

## **Aldundiak Enkarterrirako "pizgarri planeko" "12 neurriak" adostu beharko dituen mahaien bileren egutegia eta azkenengo eraketea aurkeztu ditu**

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusia Bizkaiko Batzar Nagusietara etorri da gaur, Talde Mistoak, Podemos Bizkaiak eta PPK eskatuta, "krisitik urtetea gehiago kostetan ari jakon" eskualdeari urteera emoteko aukerak aztertzeko irailaren 20an Enkarterriko alkateak izan eban bilerearen barri emoteko. Rementeriak, hitzordu haretan, ekintza zehatzak jasoten ebazan "pizgarri plana" sortzea proponidu ebanetik gertatu diran "barritasunak" azaldu ditu. Gaur, Iraskunde, Gobernu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean, oraindino definitu barik dagozan ekintza horreek "12" izango dirala eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko dirala martxan esan dau. Adierazo dauenez, planaren idazkaritza teknikoa bere gain hartu dauen Orkestra (Lehiakortasunaren Euskal Institutua) soziedadeak, Enkarterriri "bultzadea" emoteko "lau" bilera deitzea aurreikusi dau daborduko.

Lehenengo bilera datorren astelehenean, urriaren 9an, izango da, eta bertara proponidutako laneko mahai bietako kideak alkarregaz joango dira: mahai bat jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren ingurukoa da, eta bestea komunikazioen eta zerbitzu publikoen ingurukoa. Talde biak, oraingoan bakotxa bere aldetik, urriaren 23an, zemendiaren 6an eta zemendiaren 27an alkartuko dira barrero, eta Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako, inguruko udaletako eta Enkarterriko mankomunidadeko kideek eta kanpoko adituek hartuko dabe parte.

Lehenengo mahaiak –jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren ingurukoa– Balmasedako, Zallako, Güeñeseko eta Karrantzako udaletako ordezkariak osatuko dabe. Gainera, Aldundiko hiru kide (Enplegu, Iraunkortasun eta Ekonomiaren Garapen sailtakoak), Eusko Jaurlaritzako bat eta Koldo Saratxaga (K2K Emocionando-ko Zuzendaria) eta Ignacio Quintana (Ihobeko Iraunkortasun Zuzendaria) adituak be egongo dira mahaietan.

Komunikazioen eta zerbitzu publikoen inguruko mahaiari jagokonez, Balmasedako, Zallako, Soperuako eta Lanestosako udaletako, Aldundiko Garraio eta Administrazio Publiko Sailtako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta Lola Elejalde (Prospectiva y Estrategia de Innobasqueko Prospektiba eta Estrategia Zuzendaria) eta Mikel Álvarez (Mondragon Unibertsitateko Presidentea) adituek osatuko dabe.

Rementeriak azaldu dauenez, pizgarri planak hartuko dituan "hamabi neurriak" "guztien artean" adostuko dira. "Epe laburrerako" diseinatu dan Plana, "bere helburuak lortzen baditu, Bizkaiko beste eskualde batzuetan be aplikatu ahal izango dan proiektu pilotua" dala esan dau Ahaldun Nagusiak. Aldundiaren konpromisoa pizgarri plana datorren abenduaren 4an ixtea da, inplikautan dagon erakunde bakotxaren 2018ko Kontuetan jaso beharko dan aurrekontua barru dala.

### **BAT ETORRI DIRA DIAGNOSTIKOAN**

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira Enkarterriko bizi dauen egoera larria azpimarratzean. Enpresen itxieraren zigorra modu berezian jaso dauen eskualdeak "%16ko" langabezia tasa



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

jasaten dau, Bizkaiko altuena, Sestaokoaren ostean. Bere BPG Bizkaiko batez bestekoa baino “%33” txikiagoa da, Podemos Bizkaia taldeak emon dituan datuek adierazoten dabenez.

Talde Mistotik, Arturo Aldecoa batzordekideak “oso esfortzu berezia” eskatu deutse erakundeei, eskualdearen etorkizun ekonomikoa “oso kezagarria” dalako. Eskaria egin dau, lurraldeak epe luzean izan dauen bilakaerea aztertzeke eta proponiduten diran neurriak “ez daitezten partxeak izan”, denboran finkatuko diran neurriak baino. Aldecoa “kanpoko” adituak sartzearen alde agertu da, “kanpotik basoa hobeto ikusten dalako”.

Talde Popularrak, bere aldetik, prozesuaren buru izateko eskatu deutso Aldundiari, eskualdeak “erreferente bat” behar dauelako. Javier Ruiz bozeroaleak, “sortutako itxaropenek porrot ez egitea” gura dauela esan dau, izan be, bere eretziz, lehenengo bilerak –irailaren 20koak– “neurritz kanpoko tratamendua” izan eban. Erakundeen arteko bilera horreek “aldizkakotasunez egin beharko litzatekez, ez ohiko zeozer izan beharrean”, esan dau.

Podemos Bizkaia adierazo dauenez, Enkarterriko egoerak erakusten dauen moduan, ekonomiaren suspertzea “ez da jendearengana heldu”. Asun Merinero batzordekideak, pizgarri plana CELEN egoeratik sortu dala esan dau –enpresa horretako behargin batzuk saioan egon dira–, eta enpresa horren egoerea, industriaren, ingurumenaren eta lurraldearen kohesinoaren arloetan “porrot egin daben politiken isla” dala. Gainera, “ekintza kopurua daborduko aurretik finkatuta egotea” kritikau dau, eta mahaiak, “zelanbaiteko ekarpena egin daikien eragile guztiei” zabaltzea eskatu dau.

Sozialisten lerroetatik, Ekain Rico batzordekidea bat etorri da Ahaldun Nagusiagaz, Enkarterrik “bultzadea behar dauela” esatean, ekonomiaren suspertzea ez dalako heltzen ari eskualde horretako herritarren boltsikoetara. Hori dala eta, bere taldea “Espainian errenten inguruko beste hitzarmen bat” lantzearen alde dago, Enkarterriko herritarrek bizi dabena moduko egoerak murrizteko. Metodologia “barriztatzailea” daukan pizgarri planari jagokonez, Ricok aurreratu dauenez, laneko mahaietan “orain arte ikusi ez diran gaiak azaleratu dira”. Pozik agertu da, metodologia hori beste eskualde batzuetara eroateko aukerea dagolako.

EH Bilduk, bere aldetik, eskaria egin dau, Enkarterri, Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzen ari dan Ezkerralderako eta Meatzaritza Ingururako plan integralaren barruan sartu daiten. 2018ko aurrekontuetan horretarako partidak sartzeko eskatu deutso Aldundiari koalizino abertzaleak. Joseba Gezuraga batzordekideak, eskualdean behar egin dauen erakunde egituraren ebaluazinoa be eskatu dau, “orain arte egin dan guztiak ez dauela ezertarako balio izan emoten dauelako”. Esan dauenez, tamalgarria da udalerrri batzuk mahaietatik “kanpo iztea”.

Jon Andoni Atutxa EAJ-PNV taldeko Batzarretako bozeroaleak, bere aldetik, ekimena “positiboa” dala uste dau, beste gauza batzuen artean, bere metodologia dala eta beste eskualde batzuetara be eroan daitekelako, eta “danon artean” konpartitutako lana dalako. Bere eretziz egokia da Aldundiak jarduketa kopurua hamabira mugatzea “ideak larregi ez sakabanatzeko”.

Batzarretako taldeei emondako erantzunean, Aldundia lider moduan arituko dala zehaztu dau Rementeriak, eta jarduketa zehatzak bideratuko dituala, horreen artean errepideetan egin beharreko inbertsinoak azkartzea edo industriako lur-zoruak eta enpresa baktxaren egoerea aztertzea “ondo doazan eta txarto doazan enpresena”, beste batzuen artean. Gainera, esan dauenez, ez da egia Aldundiak ez dauenik Enkarterriren aldeko ezelango esfortzurik egin. Bere berbetan, 2016an Aldundiaren inbertsino handiena jaso dauen eskualdea da, “30 milioi euro



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

inguru inbertidu dira” bertan. Horrez gain, bere Gobernuak urte bi daroaz eskualdeetarako “lehiakortasun plan” batean beharrean, sektore guztiek konpartidutako proiektuakaz.

#### GASTUAK TXOFERRETAN ETA IBILGAILU OFIZIALETAN

Beste alde batetik, Talde Popularraren itaunari erantzunez, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak esan dau Aldundiak txoferretan eta ibilgailu ofizialetan egiten dauen gastua “apala eta proportzinozkoa” dala, eta diputatuek eta foru erakundeetako zuzendariak eta arduradunek egiten daben beharra errazten dauala. “Munduko edozein gobernuak, beste lurralde, herrialde eta gobernu batzuetan, egiten daben lanaren parekoa da”, adierazo dau, eta bukatzeko, ibilgailu horreen erabilera foru arau batean aurreikusita dagola adierazo dau.

PP taldeak emon dituan datuek erakusten dabenez, Aldundiak 33 ibilgailu ofizial ditu –Ahaldun Nagusiarentzat bi– eta horreek “1.400.000 euroko” gastua eragin eben 2015 eta 2016 artean. Javier Ruiz bozeroalearen eretxiz, Aldundiko agintari gorenak “ez dau bete” legealdiaren hasieran emon eban mezua, “Bizkaian politikea egiteko eta ulertzeko modu barria” sortu gura ebala esan ebanean. Bere eretxiz, “garai barrietara” egokitu behar dan “larregizko” gastua da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
06/10/2017

## **La Diputación presenta el calendario de reuniones y la composición final de las mesas que deberán consensuar las "12 medidas" del "plan de estímulo" para Enkarterri**

Compartir

Compartir en Facebook.

Compartir en Twitter.

El diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, ha acudido hoy a las Juntas Generales de Bizkaia, a petición del grupo Mixto, Podemos Bizkaia y PP, a informar del resultado de la reunión que mantuvo el 20 de septiembre con los alcaldes de Enkarterri para estudiar una salida a una comarca “que le está costando más salir de la crisis”. Rementeria ha explicado las “novedades” producidas desde que, en aquella cita, propusiera la creación de un “plan de estímulo” con acciones concretas. Hoy, en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, ha señalado que estas acciones –aún sin definir- serán “12” y se pondrán en marcha a partir del 1 de enero de 2018. Según ha informado, Orkestra (Instituto Vasco de la Competitividad), sociedad sobre la que recae la secretaría técnica del plan, contempla ya la convocatoria de “cuatro” reuniones para dar “un empujón” a Enkarterri.

La primera reunión será el próximo lunes 9 de octubre y, a ella, acudirán conjuntamente los integrantes de las dos mesas de trabajo propuestas: una de actividad económica y empleo, y otra de comunicaciones y servicios públicos. Ambos grupos volverán a reunirse, ya por separado, el 23 de octubre, el 6 de noviembre y el 27 de noviembre, y, en ellos, participarán integrantes de la Diputación, el Gobierno Vasco, los ayuntamientos de la zona, la mancomunidad de Enkarterri y expertos externos.

La primera mesa - actividad económica y empleo - estará integrada por representantes de los ayuntamientos de Balmaseda, Zalla, Güeñes y Karrantza. Habrá tres miembros de la Diputación (de los departamentos forales de Empleo, Sostenibilidad y Desarrollo Económico), uno del Gobierno vasco y los “expertos” Koldo Saratxaga (Director de K2K Emocionando) e Ignacio Quintana (Director Sostenibilidad de Ihobe).

Por su parte, la mesa sobre comunicaciones y servicios públicos, estará compuesta por responsables de los municipios de Balmaseda, Zalla, Sopuerta y Lanestosa, miembros de los departamentos forales de Transportes y Administración Pública, Gobierno Vasco, así como Lola Elejalde (Directora de Prospectiva y Estrategia de Innobasque) y Mikel Álvarez (Presidente de Mondragón Unibertsitatea).

Según ha explicado Rementeria, las “doce medidas” que incluirá el plan de estímulo serán consensuadas “entre todos”. El plan diseñado para el “corto plazo” ha sido considerado por el diputado general como “un proyecto piloto que, si sale bien, se pueda replicar en otras comarcas de Bizkaia. El compromiso foral es cerrar el plan de estímulo el próximo 4 de diciembre



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

incluyendo un apartado presupuestario que deberá consignarse en las respectivas Cuentas de 2018 de las instituciones implicadas.

## COINCIDENCIA EN EL DIAGNÓSTICO

Todos los grupos junteros han coincidido en señalar la grave situación que vive Enkarterri, una comarca castigada por el cierre de empresas que sufre una tasa de desempleo del “16%”, la mayor de Bizkaia tras Sestao. Su PIB es inferior en un “33%” a la media de Bizkaia, según datos ofrecidos por Podemos Bizkaia.

Desde el grupo Mixto, su apoderado Arturo Aldecoa ha pedido a las instituciones un esfuerzo “muy especial” ya que el futuro económico de la comarca es “muy preocupante”. Ha demandado que se analice la evolución del territorio a largo plazo y que las medidas que se propongan “no sean parches”, sino que se consoliden en el tiempo. Aldecoa ha apostado por la incorporación de expertos “externos”, ya que “desde fuera se ve mejor el bosque”.

Por su parte, el grupo Popular ha pedido a la Diputación que lidere el proceso, ya que la comarca necesita “un referente”. Su portavoz, Javier Ruiz, espera “que no se defrauden las esperanzas generadas” tras una primera reunión -la del 20 de septiembre- que tuvo, a su juicio, un “tratamiento exagerado”. Estas reuniones interinstitucionales tendrían que darse de “forma periódica y no ser algo excepcional”, ha dicho.

Podemos Bizkaia ha señalado que la situación de Enkarterri demuestra que la recuperación económica “no está llegando a la gente”. Su apoderada Asun Merinero ha asegurado que el plan de estímulo nace por la situación de CEL -algunos trabajadores han estado presentes en la sesión-, cuya situación “es el reflejo de las fallidas políticas” en el ámbito industrial, medioambiental y de cohesión del territorio. Asimismo, ha criticado que “estén ya prefijadas el número de acciones” y ha pedido que se abran las mesas a “todos los agentes que puedan aportar algo”.

Desde las filas socialistas, su apoderado Ekain Rico ha coincidido con el diputado general en que Enkarterri “necesita un empujón”, ya que la recuperación económica no está llegando a los bolsillos de la ciudadanía de esta comarca. Por ello, su grupo apuesta por abordar “un nuevo pacto de rentas en España” que mitigue situaciones como las que sufre la ciudadanía encartada. En cuanto al plan de estímulo, que cuenta con una metodología “novedosa”, Rico ha vaticinado que las mesas de trabajo “servirán para sacar cuestiones que no se han visto hasta ahora”. Se ha felicitado de que la metodología se pueda trasladar a otras comarcas.

Por su parte, EH Bildu ha pedido que Enkarterri se incluya en el plan integral para Margen Izquierda y Zona Minera que se discute en el Parlamento Vasco. La coalición abertzale ha demandado a la Diputación que incluya consignaciones económicas en los presupuestos de 2018. Su apoderado, Joseba Gezuraga, ha solicitado también una evaluación del entramado institucional que ha trabajado en la comarca ya que “parece que lo que se ha hecho hasta ahora no ha servido de nada”. Ha lamentado que se “excluya” de las mesas a algunos municipios.

A su vez, el portavoz del PNV en las Juntas, Jon Andoni Atutxa, ve la iniciativa “positiva”, entre otras cosas, porque se puede trasladar a otras comarcas, por su metodología, y porque es



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

un trabajo compartido “entre todos”. Cree acertado que la Diputación limite el número de actuaciones en una docena “para no entrar en una dispersión de ideas”.

En su respuesta a los grupos junteros, Rementeria ha precisado que la Diputación ejercerá el liderazgo y trasladará actuaciones concretas que podrían concretarse en acelerar inversiones en carreteras, o analizar los suelos industriales y la situación de cada empresa, “tanto de las que van mal como de las que van bien”. Además, ha negado que la Diputación no haya hecho esfuerzos por Enkarterri. Según él, es la comarca con mayor inversión foral en 2016, con cerca de “30 millones de euros invertidos”. Su Gobierno, además, lleva dos años trabajando en “un plan de competitividad” para las comarcas con proyectos compartidos por todos los sectores.

### GASTOS EN CHÓFERES Y VEHÍCULOS OFICIALES

Por su parte, a pregunta del grupo Popular, la diputada de Administración Públicas y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea ha sostenido que el gasto en chóferes y vehículos oficiales de la Diputación es “austero y proporcionado”, y facilita el trabajo que realizan diputados y diputadas, directores, y responsables de entidades forales. “Tiene que ver con el proceder de cualquier Gobierno en el mundo, en otros territorios, países y gobiernos”, ha dicho, para terminar que sus usos están previstos en una norma foral.

Según datos ofrecidos por el PP, la Diputación cuenta con 33 vehículos oficiales –dos para el diputado general- que supusieron un gasto de “1.400.000 euros” entre 2015 y 2016. Su portavoz, Javier Ruiz, considera que el máximo mandatario foral “no ha cumplido” con el mensaje que lanzó al inicio de legislatura cuando expresó su deseo de que arrancaba una “nueva forma de hacer y entender la política en Bizkaia”. Para él, supone un gasto “excesivo” que debe adaptarse a “los nuevos tiempos”.